

OÑATIKO EAJ ETA E.H. BILDUK 2019KO MARTXOAK 8KO
GREBA FEMINISTA BABESTEKO AURKEZTUTAKO
ERAKUNDE ADIERAZPENA

OÑATIKO UDALA	
Registro Data	
OTS 26	
SARRERA	IRTEERA
540	

Iaz, lehenengo aldiz, Euskal Herriko Mugimendu Feministak emakumeen lan etenaldi partziala deitu zuen Martxoaren 8rako, indarkeria matxistak eta emakumeak eragiten dituen desberdintasun molde ugari eragiten dituzten desorekei aurre egiteko. *Emakumeok Planto – Nosotras Paramos* lelopean, emakumeak zapaltzen dituen sistema kapitalista, patriarkala eta arrazista salatu zen.

Euskal Herriko emakume askok bat egin zuten greba dei horrekin eta mugarriztat jo zen, borroka eta aldarrikapen feministek bisibilizazio handiagoa lortu ondoren Euskal Herrian.

Aurten, Euskal Herriko Mugimendu Feministak, eragile sindikal, politiko eta sozialekin batera, 24 orduko greba deia luzatu du. Greba bost ardatzetan antolatzen da: zaintza, enplegua, pentsionistak, ikasleak eta kontsumoa. Greba feminista, guztion bizitzan eragiten duten esparruetan kokatzen da, soldatapeko zein doako lanetan, kontsumo eremuan, sexualitatean, arrazakerian, etab. Horregatik, grebaren bitartez, ardura kolektibotik abiatuta bizitza sostengatzeko itun sozial berri bat eskatzen dio euskal jendarteari, berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politika publikoak burutuz. Iaz bezala, aurten ere zaintza erdigunean kokatzen da, zaintzaren berrantolaketa soziala politika publikoen zeharkako ardatza izan behar dela aldarrikatuz.

Horregatik, eta Euskal Herriko Mugimendu Feministaren motibazioa eta proposamenarekin bat egiten dugunez, Oñatiko Udalak adostu du:

1. Mugimendu feministak deitutako grebara atxikitzea, eta erakundea osatzen dugun emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak ematea.
2. Herritarrei dei egitea mugimendu feministak deitutako mobilizazioetan parte hartzeko.

Oñatin, 2019ko otsailaren 22an.

